

EUSKARAREN ERABILERRAKO UDAL ORDENANTZA

2010-11-29ko Udalbatzan behin behinekoz onartua. Erabakia horren hirugarren puntuak honela dio:

Ezartzea publikorako ikusgarri, erabakia eta Ordenantzaren testua, 30 eguneko lan eguneko epean, erabakiaren berri Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko egunean hasita, balizko erreklamazio eta ekarpenak egin ahal izateko.

Behin igarota esandako epe hori, egondako ekarpenak eta erreklamazio guztiak aztertu eta erabakiko dira, Ordenantzaren behin betiko onarpena gauzatuz.

Hala ere, egindako ekarpen edo erreklamazioen batek aldaketa nabarmena balekarkio Ordenantzari, bai bere xedean bai bere arautze ahalmenean, behin behineko onarpenarekin hasiko litzateke berriz, berriro ere ekarpen eta erreklamazioak egiteko epea irekiz.

Erreklamaziorik edo ekarpenik ez balego, ulertuko da behin betikoz onartuta dagoela ulertu beharko da eta horren berri jakinaraziko zaio Osoko Bilkurari.

Edozein modutan ere, eta beti Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70,21 atalean jasotakoari jarraiki, behin Ordenantza betikotasunez onartuta izan, bere testu osoa argitaratuko da Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta ez da indarrean sartuko bertan argitaratu eta hamabost eguneko epea igaro bitartean, arestian esandako lege testuaren 65, 2. atalean jasotakoari jarraiki.

Behin igarota esandako epe hori, egondako ekarpenak eta erreklamazio guztiak aztertu eta erabakiko dira, Ordenantzaren behin betiko onarpena gauzatuz.

Hala ere, egindako ekarpen edo erreklamazioen batek aldaketa nabarmena balekarkio Ordenantzari, bai bere xedean bai bere arautze ahalmenean, behin behineko onarpenarekin hasiko litzateke berriz, berriro ere ekarpen eta erreklamazioak egiteko epea irekiz.

Erreklamaziorik edo ekarpenik ez balego, ulertuko da behin betikoz onartuta dagoela ulertu beharko da eta horren berri jakinaraziko zaio Osoko Bilkurari.

Edozein modutan ere, eta beti Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70,21 atalean jasotakoari jarraiki, behin Ordenantza betikotasunez onartuta izan, bere testu osoa argitaratuko da Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta ez da indarrean sartuko bertan argitaratu eta hamabost eguneko epea igaro bitartean, arestian esandako lege testuaren 65, 2. atalean jasotakoari jarraiki.

Horri jarraiki, aztergarri jartzen da Euskararen Erabilerrako Udal Ordenantzaren testua. Honakoa hau da:

OINARRI OROKORRAK

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza eta, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala Euskal Autonomia Erkidego osoan eta, ondorioz, Laudion.

Urte luzetan euskarak jasan duen ordezkatzeko prozesuaren ondorioz, EAEko hizkuntza ofizial biak benetako berdintasunean izateko oso urrun daude. Hori dela eta, Audio Udalak, hizkuntzen arteko berdintasuna lortzeko asmoz, euskarari tratamendu egokitu emango dio betiere gaztelania erabili nahi duten herritarren eskubideak kaltetu barik.

Audio Udalak, bere zeregin eta harremanetan, Ordenantza honetan xedatutakoari jarraiki erabiliko ditu EAEko hizkuntza ofizialak.

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko abenduaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, bestalde, zenbait betebeharrak ezarri ziren herri administrazioei, herritarren hizkuntza eskubideak aitortze aldera.

Hau hala izanik, Audio Udalak bere gain hartzen du abenduaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak bermatzeko konpromisoa:

- Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizial biak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz bai idatziz.
- Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitate publikorekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.
- Audio Udalarekin, azpikontrataturako enprekin eta bere menpeko organismo ororekin ahozko edota idatzizko harremanak euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- Audio Udalak antolatutako edota kudeatutako ikasketa oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- Audio Udalak egunkari, aldizkari, irratia eta beste edozein komunikabideren bidez jakitera ematen dituen berri eta xedapen oro euskaraz zein gaztelaniaz hartzeko eskubidea.
- Audioko Administrazioari edozein bileratan euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea.

Audio Udalak neurri egokiak hartuko ditu, berarekin harremanak euskara hutsean eduki nahi dituzten herritarren aukera bermatzeko.

Audio Udalak zerbitzua euskaraz ematea kalitatezko zerbitzu bat ematea dela ulertzen du. Kalitatezko zerbitzua emateko asmoa duen heinean, Ordenantza honetan jasotako artikuluek euskararen erabilera, udalaren eremu guztietan, sustatzeko helburua izango dute.

1. KAPITULUA: EUSKARAREN ERABILERA UDAL BARRUAN

Funtsezko oinarria.

1. artikulua. Laudio Udalak euskararen sustapena bultzatuko du bere udal esparru guztietan, hizkuntza ofizial bien arteko egoera egiazko berdintasunekoa izatearen aldera. Halarik ere, Ordenantza honen ondorioz hartutako erabaki bakar bat ere ezin daiteke gaztelaniaren erabileraren kontrako norabidean joan, eta ez ditu inolaz ere gaztelania erabili nahi duten herritarren eskubideak kaltetuko.

Premisa hau, arau erabakitzaile izaera izango du eta era horretan baliatuko da Ordenantza hau aplikatzearen ondorioz sor litekeen edozelako gatazka argitu beharko balitz.

Zerbitzu hizkuntza

2. artikulua. Udalaren barruko administrazio jarduerak bi hizkuntza ofizialetan egin ahal izango dira. Udalak baliabideak jarriko ditu euskaraz lan egitea sustatze aldera.

Barruko komunikazioak

3. artikulua. Udal langileei eta ordezkari politikoei zuzendutako komunikazio orokor guztiak, behintzat, euskaraz egongo dira. Irizpide hau, bereziki, Alkatetza, Idazkaritza eta Funtzio Publikotik datozen barne komunikazio guztietan aplikatuko da.

Udal inprimakiak

4. artikulua. Herritarrei zuzendutako udal inprimaki guztiak euskaraz ere izatea bermatuko da.

Ageriko idatzizko elementuak

5. artikulua. Udalaren menpeko errotulazio guztiak euskaraz ere izatea bermatuko da. Errotulu berri bat egin aurretik, Euskara Arloaren oniritzi teknikoa beharko da, hizkuntzen zuzentasuna bermatze aldera.

Hizkuntza biak erabiltzeko irizpideak Ordenantza honen 5. Xedapen Gehigarrian datoz.

Udal zigiluak

6. artikulua. Udal zigiluen testua hizkuntza ofizial bietan egotea bermatuko da. Horretarako, Ordenantza honen 5. Xedapen Gehigarrian ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat.

Programa informatikoak

7. artikulua. Udalak berak sortutako programa informatikoak, barne-sareak eta txantiloiak euskaraz egotea bermatuko da. Euskarazko bertsiorik dagoenean, erositako programak

euskarazkoak izango dira eta, behintzat, derrigortasun data ezarria duten lanpostuetan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren barruan zehaztutako lanpostuetan eta horrela izatea eskatzen duen edozein langilearen lanpostuan ere.

Laudio udaleko helbide elektronikoro korren (arloak, zerbitzuak, atalak...) izendapen berriak euskarazkoak izango dira, hau da, "a bildua"-ren aurretik doan izendapena. Gauza bera udalak sor ditzakeen bestelako web, blog eta antzekoetan.

Udal erregistroa

8. artikulua. Erregistro Orokorrean aurkezten diren agiriak, agiria bera aurkezten den hizkuntza ofizialean inskribatuko dira. Hizkuntza bietan aurkezten den kasuetan, erregistroa euskaraz egingo da.

Jakinarazpenak

9. artikulua. Euskara hizkuntza ofiziala den herrietan egoitza edo ordezkariak duten pertsona fisiko edo juridikoei zuzenduko zaien lehen jakinarazpena euskaraz eta gaztelaniaz izango da. Hortik aurrera, jakinarazpenean bertan Udalak galdetuko du zein hizkuntzatan jaso nahi dituen ondorengo jakinarazpenak (euskaraz, gaztelaniaz ala bietara). Udalaren erantzukizuna izango da hautatutako eskubide hori betearaztea.

Kanpo komunikazioak

10. artikulua.

Udal propaganda, kartel, iragarki, bando, Ordenantza, barruko arautegi eta aurrekontuak behintzat euskaraz idatziko dira. Tratu bera emango zaie aldizkarietara eta, orokorrean, udal argitalpen guztiei.

Era berean, udal ebazpenak hizkuntza ofizial bietan argitaratuko dira.

Laudio Udalaren web ofizialean (www.laudiokoudala.net) ezarritako edukiak, behintzat, euskaraz agertuko dira eta hizkuntza honetako edukiek beste hizkuntzetakoek duten helgarritasun bera edo nabariagoa izango dute. Udalaren informazio baten gaztelaniazko bertsioa ezin izango da web orrian ezarri euskarazkoa ez dagoen bitartean.

Euskara lan-hizkuntza izateko eskubidea

11. artikulua. Udal organo guztiek eskubidea izango dute ohiko lan hizkuntza euskara izateko. Erabaki hori hartzen duten organoen bilkurak euskaraz egingo dira, baina beti hizkuntza hori ez dakiten kideek bilkuren garapen normalerako bideak izan ditzatela bermatuz.

Ohiko lan hizkuntza euskara aukeratu duten organoek egindako aktak eta, orokorrean, agiriak, euskaraz idatzi eta, behar izanez gero, gaztelaniara itzuliko dira. Euskara hutsezkoak ere izan ahal izango dira agiri horien hartzaile guztiek hala erabakitzen duten kasuetan.

Udal organoak

12. artikulua. Kide batzuez osatutako udal organoen bilkuretarako deialdiak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, lan hizkuntza euskara aukeratu duten organoei dagozkienak salbu, aurreiritzen delako bere kide guztiak ondo moldatzen direla hizkuntza horretan. Esandako kasu horietan euskaraz gauzatuko dira bilerak. Hala ere, organo horietako kideren batek beharko balu, gaztelerarako itzulpena bermatzeko beharrezko liratekeen baliabideak bermatuko litzazkioke.

Itzulpen politika

13. artikulua. Euskara lan-hizkuntza izatea da Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen helburu linguistikoetako bat eta horretara bideratu dira hizkuntza politikaren ahalegin gehienak. Hori dela eta, helburua Administrazioko langileek euskaraz egitea da eta ez itzulpen zerbitzura jotzea uneoro eta baliabide bakar gisa. Horrela gauzak, Audio udaleko itzulpen zerbitzua atal bateko langileek lan hori egiteko gauza ez diren kasuetarako baino ez da erabiliko. Hala ere, beti bermatuko da langileentzako aholku teknikoaren zerbitzua.

Irizpide orokor gisa, udal langileek ezin dute udaletik kanporako itzulpenik egin, horretara dedikatzen diren enpresa komertzialei kalterik ez egiteko.

Hala ere, udalean adostutako bitartekoak erabilita, jakinarazpen laburren euskararako doako itzulpena egingo du, elkarteek, ferietako salerosleek eta abarrek Ordenantza hau bete dezaten. Bai eta ekimen edo plan berezi baterako hala eta espresuki erabakitzen denean ere.

Udalaren menpeko langileak

14. artikulua. Kontratu berrietan, deialdi publikoz nahiz barne sustapenez betetzen diren lanpostuetan eta lanpostu horiek derrigortasun-data dutenean, dagokien hizkuntza eskakizuna ezinbestez betetzea exijituko da.

Udalean egin beharreko ordezkapenekin ere berdin jokatu da.

Lanpostuetan euskara meritu gisa baloratu behar denean (derrigorrezkoa ez denean), horrela jokatu da:

- 1. eta 2. Hizkuntza Eskakizuneko lanpostuak direnean, puntuazio osoaren %10.

- 3. eta 4. Hizkuntza Eskakizuneko lanpostuak direnean, puntuazio osoaren %20.

Lanbide Heziketa Udal Ikastetxean Eusko Jaurlaritzak irakaskuntzarako onartutako hizkuntza eskakizunak ezarriko dira.

Beste Administrazioekiko harremanak

15. artikulua.

Udalak euskara ere ofiziala den beste lurraldeetako Administrazioei zuzendutako agirietan euskararen presentzia bermatuko da, gainerako hizkuntza ofizialekin batera hala balegokio.

Laudio Udalak beste Administrazioei jakinaraziko die bidaliko dizkioten agiri guztiak, euskaraz ere idatzitakoak izan daitezen nahi duela.

Kontratuak eta hitzarmenak

16. artikulua. Udalak sinatzen dituen kontratuak eta hitzarmenak behintzat euskaraz idatziak izango dira, betiere sinatzen duen pertsonak, instituzioak edo entitateak kontratua edo hitzarmena oso-osorik ulertzea bermatuta badago.

Zerbitzuen kontratazioa

17. artikulua. Udalak enpresa bat kontratatzen duenean erakunde barrurako nahiz herritarrei begirako zerbitzu bat emateko, enpresa horrek eta bere langileek Ordenantza honek udalerako zehazten dituen betekizun berberak bete behar ditu. Betekizun horiek derrigorrez agertu behar dira kontratuatarako baldintza orokorretan.

2. KAPITULUA: EUSKARAREN SUSTAPENA LAUDIO UDALERRIAN

Xedapen orokorra

18. artikulua. Udalak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu ondorengo helburuak lortzeko:

- Hizkuntza ofizial biak dakizkiten herritarren kopurua gehitzea.
- Euskararen erabilera sustatu eta bultzatzea, bi hizkuntza ofizialen arteko oreka lortze aldera.

Toki-izenen erabilera

19. artikulua. Udalerriko toki-izenak erabiltzean, hauen bertsio normalizatua erabiliko da, hau da, Audio udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz argitaratutako mapan agertu bezala.

Kale, etxalde eta abar berririk egitekotan, Euskara Arloari eskatuko zaio izendapen berrirako txosten teknikoa, nahiz eta loteslea ez izan.

Bestetik, izendapen berri hauek onartzeko honako irizpide hauek bete beharko dira:

1. Izendatzeko leku berriak toki-izenik (toponimoa) balu, horixe lehenetsiko da.
2. Leku-izen horiek era normalizatuan idatziko dira eta zalantzarik izanez gero, Euskaltzaindia hizkuntza-akademiari galdetuko zaio.
3. Izendapen bakarrak onartuko dira, ez hizkuntza ofizial bakoitzeko bat.
4. Leku izenik ez balego, pertsona edo erakunde edo antzekoen izenak erabiliko dira.
5. Pertsona izenak erabiltzen diren kasuetan, pertsona horiek gailenak izan beharko dira izandako ibilbide pertsonal bereziagatik, egindakoagatik... baina beti pertsonaia horrek egindakoen eragina Laudioko mugetatik kanpo ere ezaguna denean.
6. Pertsona hilberri baten izena erabili nahi denean, behintzat, urtebeteko epea iragan beharko da heriotza egunetik eta izendapena onartu bitartean.

Seinaleak

20. artikulua. Trafiko seinaleak eta Udalak bide publikoan instalatzen dituen eta lehendik instalatuak dituen iragarkiak, behintzat, euskaraz idatzitakoak izango dira.

Kultura, kirol eta aisialdi jarduerak

21. artikulua. Udalak diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo aisialdi jardueretan derrigorrez haiek iragartzeko erabiltzen den edozein euskarri behintzat euskaraz joan behar du. Ahozko propaganda denean ere, euskaraz izan behar du behintzat.

Era berean, udalaren herri jabetzako lurretan aldi baterako jarriko den edozein instalaziok ere goragoko baldintzak bete behar ditu.

Ume eta gazteei begirako jarduerak

22. artikulua. Laudio udalak diruz laguntzen dituen ume eta gazteei begirako jarduerak euskaraz izango dira, salbu eta merkatuan horrelakorik ez badago. Bereziki zainduko dira Laudio udalak berak aurrera eramaten dituenak.

3. KAPITULUA: ORDENANTZAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIOA

23. artikulua. Ordenantza honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko taldea osatuko da. Dena den, Ordenantza betetzearen ardura Alkate-Udalburuak izango du eta, berak hala erabakitzen duenean, dagokion zinegotziak.

Ordenantzaren jarraipena egiteko arlo bakoitzean solaskide edo arduradun bat izendatuko du udalak, Alkatearen Dekretu baten bidez. Pertsona horiek izango dute Ordenantza betetzearen jarraipena egiteko ardura, nork bere arloarena. Ordenantza betetzen ez den kasuetarako, herritarren kexak bideratzeko sistema ere jarriko da martxan.

Ordenantza onartu eta hiru urteko epean ebaluazioa egingo da Ordenantzaren betetze maila zehazte aldera. Ebaluazio hau hiru urterik behin errepikatuko da, Ordenantza indarrean dagoen bitartean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Ordenantza honetan xedatutakoa Euskara Planaren bidez aplikatuko da eta Euskararen Erabileraren Jarraipen eta Balioztapen Batzordeak balioztatuko du.

Bigarrena. Erabakiei, jakinarazpenei, xedapenei, ziurtagiriei eta kontratazioei buruz Ordenantza honetan xedatutakoa, Udalaren giza-baliabideak eta bestelako bitartekoak kontuan hartuta gauzatuko da.

Hirugarrena. Udalean adostutako bitartekoak erabilia, jakinarazpen laburren euskararako doako itzulpena egingo du, elkarteek, ferietako salerosleek eta abarrek Ordenantza hau bete dezaten.

Laugarrena. Izaera orokorreko informazioetan, ulergarritasuna bermatzen denean, euskara hutsez egingo da.

Bosgarrena. Udalari dagozkion berezko esparruetan hizkuntzek izango duten agerpena estandarizatzeko asmoz, Audio Udaleko Gobernu Batzordeak 2003ko azaroaren 21eko bilkuran aho batez onartutako irizpideak erabiliko dira. Honakoa hauek dira:

- a) Irakurketaren ibilbideari jarraiki, euskara gaztelania baino lehentsuago agertuko da. Hau da, testuak goitik beherako taxutzea duenean, euskarazko testua goiko aldean egongo da eta, horizontala denean, gaztelaniazkoaren ezker aldean.
- b) Testua zutabetan antolaturik egon behar duenean, euskarazko testua ezkerrekoan agertuko da.
- c) Erabiltzen diren hizkien tamainan ezberdintasunik balego, euskarazko testua, tamaina handieneko hizkietan egongo da.
- d) Eskuarki, errotulazioan, karteletan eta antzekoetan, euskarazko testuak tamaina handiagoa izango du gaztelaniazkoak baino.
- e) Badira kontuan hartu behar diren hierarkia tipografiko batzuk: ondoren adierazten dira, garrantziaren arabera hurrenkeraz. Edozein kasutan ere, euskarazko testuak gaztelaniazkoak baino eskala altuago bat hartuko du inprimaki, errotulazio, kartel eta abarretan. Idazki arruntetan, zutabeetako testuetan eta antzekoetan, berriz, maila bera izango dute.
- f) Sarritan erabiltzen diren inprimakietan, aurreko erabakian azaldu diren mailaketaz gain, kontuan hartuko da orrialde berean agertuko direla bi hizkuntzen bertsioak, hots, ez da orrialde batean euskarazkoa jarriko eta beste batean gaztelaniazkoa, orri berean testu biak baizik.
- g) Sarri, elementu batzuk ager daitezke, ezer berezirik ekarri gabe, hizkuntza bat baztertzen dutenak eta, beraz, saihestu behar direnak. Hauetako bat, helbideak idaztekoak da. Herritarrekiko harremanetan "Goikogane, 25" formula baliatuko da eta ez "C/Goikogane, nº 25" tankerakoak.
- h) Hizkuntza bakoitzeko testuak bereizirik agertu behar direnean (iragarki-taula, kartel ezberdinak eta abar), euskarazko testuak gaztelaniazkoak duen helgarritasun bera edo gehiago izango du.

Seigarrena. Udalak era zuzenean edo bere menpeko enpresa baten bitartez (bankuak, zerbitzu enpresak...), herritarrei helarazten dizkien errezibo, jakinarazpen, faktura eta gainerakoetan, euskararen presentzia bermatuko da. Erakundearen euskarazko izendapena ere, agertu beharko da: "Audio(ko) Udala".

Zazpigarrena. Udalak sortutako dokumentazio guztian erakundearen, arloaren edota udal zerbitzuaren euskarazko izena agertuko da behinik behin.

AZKEN XEDAPENA

1. Ordenantza hau indarrean sartuko da Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta behin legeriak ezarritako ezinbesteko epeak igaro eta gero.
2. Ordenantza indarrean jarri eta urtebetera berraztertu egingo da zenbateraino bete den aztertzeko eta bidezkoak diren neurriak hartzeko. Hau guztia 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat agitaratzen da.